

## UEUren COVID-19 PREBENTZIO-NEURRIAK

Osasun-agintaritzak eta instituzioek emandako segurtasun- eta higiene-neurriei jarraituko zaie. UEUK finkatutako COVID prebentzio-neurriak UEUK antolatutako jarduera guztietan aplikatuko dira. Jarduera UEUren egoitzatik kanpo burutzen denean, bertan finkatutako prebentzio-neurriak jarraituko dira.

### Neurri orokorrak eta prebentziozkoak

- Segurtasun-distantzia mantendu: 1,2 metroko distantzia gordeko da eraikinaren barruko espazioetan zein eraikinaren kanpoko guneeetan.
- Garbitasuna eta higiena: eskuak maiztasunez garbituko dira soluzio hidroalkoholikoarekin edo ur eta xaboiarekin.
- Erabiltzen ari diren espazioak bi ordurik behin aireztatuko dira.

### Maskaren erabilera

- Maskara uneoro eramatea ezinbestekoa da barruko espazioetan partaide guztientzat (irakasleak barne), nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,2 metrokoa izan.
- Kanpoko guneeetan (terrazetan) maskara ken daiteke, betiere, segurtasun-distantzia mantenduz gero.

### Espazioen edukiera eta erabilera

- **Ikasgelak:** aforoa eta edukiera maximoak zehaztu dira, partaideen 1,2 metroko distantzia bermatzeko.
  - Aulki eta mahaiak: ikasgela jarduerarako prestatuko da, ezin dira jarritakoak mugitu.
  - Materiala: irakaslearen mahaian dagoen materiala erabiliko da. Irakasle bat baino gehiago egonez gero, irakasle aldaketa egiterakoan, erabilitako material guztia desinfektatzea beharrezkoa da.
- **Espazio komunetan** (pasilloak, eskailerak, komunak...) erabilera mailakatua sustatuko da.
- **Eskaileraren** erabilera lehenetsiko da, igogailua salbuespenetan bakarrik erabiliko da.
- **Sarrera eta irteerak:** modu ordenatuan egingo dira.
  - Egoitzak aukera hori ematen duenean, sarrerako eta irteerako ate independenteak erabiliko dira, ikastaro bat baino gehiago daudenean aldi berean.

### Bestelakoak

- Atsedeneko **kafea eta bazkariak:** uneko arautegiak baimentzen duenaren arabera antolatuko dira.
- **Hondakinen kudeaketa** arduratsua egingo da.

**Denon osasuna zaintzea guztion eginkizuna da, izan gaitezen arduratsua !!**

Jarraibide hauek larrialdi-egoeraren fase eta momentuko irizpide eta arauen arabera moldatzen eta egokitzen joango gara.